



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Hiztun berriak (bigarren)
hizkuntzan irakasle. Mugak eta
ekarpen gehigarriak

Beñat Lascano

25-30 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.03>



Hiztun berriak (bigarren) hizkuntzan irakasle.

Mugak eta ekarpen gehigarriak

Lascano, Beñat

IKERUMR5478/UBM)

benatlaxka@hotmail.fr

Laburpena

Azken urteetan, euskarazko irakaskuntza gero eta gehiago garatzen da Ipar Euskal Herriko eskola modelo elebidunen baitan. Garapen honekin batera, eta garapen hau bermatzeko, irakasle profil berriak agertzen dira: euskara ikasi eta euskaraz irakasten dutenak, erran nahi baita erabiliko duten instrukzio hizkuntza, ikasle gehienek bigarren hizkuntza dena, haien bigarren hizkuntza ere izanen dela, aski berriki menperatzen duten hizkuntza (eta menperatze horren bidean oraindik hobekuntzak egiten ari direla).

Honek ondoriozta dezakeen irakasteko moldearen inguruko gogoeta bat proposatu nahi da lan honetan.

Hitz gakoak: irakaskuntza elebiduna, H2 i(ra)kaskuntza, akatsen kudeaketa.

Abstract

Ces dernières années, l'enseignement en basque se développe au sein des écoles bilingues du Pays-Basque Nord. En conséquence de ce développement, et pour le rendre possible, un nouveau profil de professeurs voit le jour: enseignants ayant appris le basque et qui enseignent en basque. Ainsi, la langue d'instruction utilisée en classe, qui est la langue seconde de la majorité des élèves, sera aussi la langue seconde des professeurs, langue dont ils auront une maîtrise assez récente (et dont ils perfectionnent encore la maîtrise).

Ce travail est une réflexion au sujet de la manière d'enseigner (en langue 2) que ce nouveau profil de professeur proposera.

Mots clés: *enseignement bilingue, enseignement/apprentissage de la langue seconde, traitement des erreurs.*

1. Sarrera/uneko egoera

Ipar Euskal-Herrian (IEH) gaur-egun, irakaskuntza modelo elebidunek dute euskararen transmisioa segurtatzen belaunaldi berriei (etxeko transmisioa gero eta ahula gertatuz, EEP eta Eusko Jaurlaritzak, 2011; EEP, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak, 2017).

Urteak aitzina joan ahala, gero eta ikasle gehiago dira eskola eredu hauetan (EEP, 2015), murgilketazko zein eta ordu parekotasunezko eredu¹. Egoera honek ondorioztatzen du euskaraz irakasten duten irakasleen beharra, eta eskas bat agertu da alde horretatik urte batzuetan².

Eskas honi erantzuteko irakasle batzuen formakuntza linguistikoak antolatu dira (2016, 2017, 2019ean), euskara ikasi/hobetu eta euskaraz irakasten hasteko (ordu parekotasunezko eskola elebidunetan). Honek erran nahi du, irakasle hauek beren bigarren hizkuntza (H2) erabiliko dutela, ikasi/barneratu berri duten hizkuntza, instrukzio hizkuntza bezala, hau haien ikasleen H2a izanen dela ere.

2. Ikerketaren helburuak

¹ Murgilketazko ereduak ikasgaiak (hizkuntzak aparte) euskaraz irakatsiak dira, bigarrenean ikasgaien erdia euskaraz eta beste erdia frantsesez (Coyos, 2016).

² Ez dira konkurtsoko postu guztiak bete, adibidez 2007, 2011 eta 2013 urteetan (EEP, 2015).

Ekarpen honetan gogoeta bat proposatu nahi da aurkeztu problematikaren inguruan: zein erronka agertzen da H2 ikasi berri batean irakasterakoan? Zein ondorio ukan dezake?

Galdera hauek datoz gorago aurkeztu formakuntzak aipatzen direnean jendeari, laster dudazko ohar batzuk agertzen baitira: euskara maila aski ona ukanean dute irakasle hauek? Ez dute hutsik eginen ikasleen aitzinean (eta ondorioz hizkuntza akats batzuk egiteko usaia irakatsiko ikasleei)³?

Hizkuntza mailari doakionez, erran behar da formakuntzaren helburua dela C1 mailarat helaraztea, maila honek bermatuko baitie eroso izatea ondoko urte(et)an beren klaseetan, eta ikasleentzat eredu egokiak izatea euskararen erabileran. Erabiltzaile gaituaren (HABE, 2005) maila hau ez bada lortzen, gutxienez B2 maila lortu dutela segurtatuko da irakasteko, erran nahi baita erabiltzaile independentea dela (mintzamen zuzentasunean adibidez: *“oinarrizko egiturak ezagutzen ditu, eta orokorrean zuzen erabiltzen ditu ahozko adierazpenean. Dena den, gaiaren konplexutasunaren arabera batez ere, okerren bat edo beste egin dezake, baina atzera eginez zuzentzen du maiz”* (HABE, 2015).

Irakasle hauek, ikasleen H2an irakasten duten irakasle guzietan bezala, irakasteko estrategia berezi batzuk ikasi eta praktikatu beharko dituzte, hau izanen da artikulua honetan aipatuko den lehen alderdia. Hizkuntza hori beren H2a izanez ere (aitzin deskribatu B2/C1 maila batean), egoera eta erronka berezi batzuk biziko dituztela uste dugu, muga bat izan daitekeena, baina abantaila bat ere, H2 horretan irakasterakoan. Bigarren alderdi hau berezikiago garatuko da lan honetan.

3. Ikerketaren muina eta ondorioak

3.1. Ikasleen H2an irakasterakoan barneratzeko estrategiak

Ikasleen H2an irakasteak berezitasunak dakartza irakasteko moldeetan. Eta hizkuntza hau irakaslearen lehen hizkuntza (H1) ala H2a izan, estrategia berak barneratu eta praktikan ematen ikasi beharko da.

Argi eduki behar den printzipio bat da: "hizkuntzan irakastea" ez dela "hizkuntza irakastea", biak desberdinki egiten dira. Hizkuntza ikasgai guztietan erabiliko da, instrukzio hizkuntza gisa, eta honela da pasaziko (erritualak, ikasgai desberdinetako saioak, jokoak, ateraldiak hizkuntzan eginez). Instrukzio hizkuntza hau ikasleen H2a delarik, ulermenerako eta adierazpenerako muga bat izan daiteke (ez dute beren H1a bezain ongi menperatzen, eskolako lehen urteetan behintzat).

Irakasleak, H2 horretan ikasleen erreferente nagusiak (edo bakarrak) bilakatuko dira, eta ondorioz egin-molde pedagogiko bereziak berenganatu beharko dituzte, ikasleen ulermena estimulatuzko, negoziatzeko, eta azken finean segurtatzeko. Ikasleari, eta honen H2ko gaitasunen bilakaerari egokituko zaizkio: hizkuntza erraz, edo erraztu bat erabiliko du, artikulazio eta intonazio gain-markatuak, erritmo eta jario egoki bat, errepikapenak (irakasleak berak ereduarekin errepikatuko du, edo ikasleari/ikasleei errepikaraziko dio/die), keinuak... etab.⁴ (Baker, 1993; Garro, Larrañaga eta Sainz, 2015; Manterola, 2010; TEL2L, 2015; Zabaleta, 1994, Idiazabal, 2016).

Bestalde, ikasleek erabili hizkuntza kudeatzen ikasi behar da. H2a ikasten ari delako, gerta daiteke ikasleak ez dakielarik gauzak nola adierazi hizkuntza horretan bere H1a (erdara) erabiltzea komunikatzeko. Halakoetan, irakasleek beharko dute ikasi nola erantzun, zein jarrera erabili.

Irakasleak H1 hori onartzea eta erabiltzea (hitz edo esaldi baten itzulpena eginez) estrategia bat izan daiteke (TEL2L, 2015), egoera bat desblokeatzea dezake aldatze honek (alde ezkor bat ukan dezake

3 Ohar eta duda hauek jendearengandik bezainbeste heldu dira formatzaile eta formakuntza segitzen duten irakasleengandik.

4 Ikasleek, beren H2 ikasteko prozesuan, lehen denbora batean esaldien zentzu orokorra ulertuko du, laguntzat hartuz linguistikoak ez diren elementu guzietan, irakaslearen estrategia horietan (erritualak, jestu eta keinuak, begiradak, ikaskideen erreakzioak). Gero lehen interbentzioak eginen ditu, imitazioz (eta bere H1ean oinarrituz), esaldi zuzenak egiten hasi aitzin (Baker, 1993, Dalgalian, 2013; Lefebvre, 2008; Staniforth, 2011).

estrategia hau sistematikoki erabiltzeak, hau erraztasunaren bidea bilakatzen ahalko dela, ikasleak indar gutiago egitea H2an, dakielako H1a erabiltzea aski duela, edo H1ean aski fite errana izanen zaiola H2an ulertzen ez duena). Beste estrategia batzuk erabil daitezke, irakasleak euskarazko eredu atxikitzea, bermatuz ulermena (edo ulermen minimoa) ikaslearengan, aitzin aipatu strategiak erabiliz (errepikatu-errepikarazi, arraformulatu, keinuak egin, ikasleak suposatzeko erran nahiak, gauzak saiatzeko H2an... etab.).

Idea berarekin segitzeko, H2a ikasten ari delako, gerta daiteke ikasleak akatsak egitea hizkuntza hau erabiltzen saiatzean. Eta hauek kudeatzen ere ikasi beharko du H2ko irakasleak.

Akatsak hizkuntza baten ikastearen prozesu normalaren barne dira (Baker, 1993; Hagège, 2013). Ikaslea ez da blokeatu behar zuzenketa sistematikoekin: erdibide bat atzeman mezuaren ulermena eta zuzentasunaren artean... (Baker, 1993).

Zuzentzeko molde desberdinez jabetu beharko dute ondorioz. Hiru bide edo fase izan daitezke honen egiteko: lehen denbora batean irakasleak onartuko ditu (bere aldetik eredu gisa forma zuzenak erabiliz, ikaslearen hitz berak berriz hartuz eta molde egokian erabiliz), ondotik diskretuki berriz hartuko ditu esaldietako forma okerrak (ez egonkortzeko ikaslearengan), eta zuzenketa fasea etorriko da (Petit, 2001). Zuzenketa molde baikorrean egin behar dira, zehatz eta argiki izanez. Hauetan ideala izanen da ikasleak egiten duen auto-zuzenketa (irakasleak ohartarazirik edo ez, eta ikaskideengandik lagundua izan daitekeena ere).

Idea da zuzenketa ekarri behar zaizkiola, ez akatsak egonkortzeko, baina ikasleen motibazioa trahatu gabe (sistematikoki moztua izana blokeagarria izan daitekeelako).

Irakaskuntza elebidunean, erdibide eta oreka bat aurkitu behar da ikasgaien eta hizkuntzaren formen menperatzean, H2an ekoizpen gaitasunak eraiki behar dira haurraren eta eduki akademikoaren menperatzea segurtatu (Baker, 1993; Idiazabal, 2016; Manterola, 2010)⁵.

Ikasleen H2an irakasten duen irakasleak erabiliko dituen estrategia bereziak aipatu ditugula, orain gara dezagun instrukzio hizkuntza, ikasleen eta irakasleen H2a izateak dakartzen erronka bereziena.

3.2. Ikasleen H2a irakasleen H2a denean izan daitekeen "muga gehigarria"

Gorago aipatu dugun bezala, B2 maila inguruan den hiztun batek (C1erako bidean), akatsak egin ditzake bere H2an (maiz auto-zuzenduak), ez segurtasun kutsu bat nabaritzen ahal zaio artetan hizkuntza hau erabiltzerakoan (bere burua ongi ulertarazi duelako kezka)⁶.

Bi puntu hauek muga bezala ikusiak izan daitezke, ikasleen H2an eredu bilakatu beharko duelako irakasleak. Baina, interes bat ere ukan dezakete.

Lehenik, bere burua ongi ulertarazi duelako kezka, ondorioztatuko du, klasean, etengabe segurtatuko duela ikasleek ulertu dutela erran duena (hau ikasleen H2an irakasten duen irakasle ororena da funtsean, hizkuntza hau irakaslearen H1 ala H2 izan).

Hizkuntza ez dela traba bat izan segurtatuko du lehenik, hiztegia azalduz, segurtatuz ulertua dela hitza, eta hiztegiaren gibelean kontzeptuak ere ulertuak direla bermatuko du honela, maiz (edo batzuetan) agertuko baita ulermen-arazo nagusia ez zuela hitzak sortzen baizik eta honek adierazten zuen kontzeptuak)... eta H2an ari den irakasleak gehiagotan azalduko ditu kontzeptuak H1ean baino, H1ean suposatuz hitza ulertua dela maiz ez baita azaltzen, ez hitza eta ez kontzeptua (Idiazabal, 2011).

⁵ Gainera, ikasleek beren bi hizkuntzen artean gaitasun transferrak egiten dituzte (H1an ikasia H2an baliatuz, eta alderantziz). Ikasle elebidunen estrategietan sartzen da orduan hizkuntzen arteko zubiak eraikitzea eta hauek erabiltzea, batan ikasiak laguntzeko bestean (Cummins, 2005; Dalgalian, 2000; Idiazabal eta Manterola, 2009; Lascano, 2016).

⁶ Funtsean, ez dezagun burutik gal H1a delarik ere denok egiten ditugula akatsak, maiz oharkabe, bereziki ahozkoan (ondorioz auto-zuzendu gabe pasatzen dira hauek).

Ikasleen ulermenean haatik, gerta liteke irakasle H2 hiztun berriak abantaila bat ukaitea hiztun zaharraren aldean: ikasleen zailtasunak errazkiago edo argikiago ulertzea, eta ondorioz argiago azaltzen jakitea. Hau da, gerta daiteke ikasleak zailtasuna ukaitea irakasleak hilabete batzuk aitzinago ukan zuen leku berean (eta leku horretan H2ko irakasle hiztun zaharrak ez ulertzea zertarik datorren arazoa, zergatik puntu zailtsu bat den ikaslearentzat). Kasu hauetan azalpen argi, edo adibide eraginkor bat eman diezaioke irakasle hiztun berriak, beretzat ibili den estrategia bat erakutsiz (hiztun zaharrak egiten jakinen ez zuena beharbada, edo agian azalpen teknikoegi batekin, ez hain egokia lehen edo bigarren hezkuntzako ikasle batentzat)⁷.

Aipatu dugun beste muga, akatsak egitearena da (goiz ala berant gertatzen baita akatsak egitea, bai H1an eta gehiago ikasi berri den H2an). Akatsek, alde baikor bat ukan dezakete, baldin eta zuzenduak badira⁸. Hau bi moldez gerta daiteke.

Irakasleak huts auto-zuzenduak egiten baditu, indarra ukan dezake ikasleengan. Estrukturagarria izan daiteke. Ikasleek ikusten dute irakasleak ere huts batzuk egiten dituela, haiek bezala, tronpatzen ahal dela, baina badakiela bere burua zuzentzen, eta beharbada gauza batzuk hobeki ulertuko dituzte haiek ere, beren hutsak ulertuko dituzte (eta horrela zailtasunak gaintzen ahalko dituzte), edo huts egiteko beldurrik gabe hitz egiterat motibatuko ditu, eta haiek ere autozuzenketa baloratuko eta praktikatuko dute (ohartzen direnean beren akatsei).

Bigarren kasu interesgarri bat: hutsari, ez badu irakasleak zuzentzen, batzuetan ikaslea ohartuko zaio, eta irakasleari erraten ahalko dio. Irakaslea zuzentzeak autoestimua ekartzen diezaieke ikasleei, ikasgai desberdinetan eta hizkuntzan ere.

Azkenean, ikasleak hutsak eginez hizkuntza ikasten duen era berean (hutsak ulertu eta nola saihestu azaltzen zaiola), irakasleak, bakan, hutsak eginez eta hauen zuzenketa ikasleen aitzinean, edo hauen parte hartzearekin gertaraziz, ikasteko estrategia bat ere erakuts dezake.

4. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Artikulu honetan aipatu bezala, IEHn, euskarazko irakaskuntza proposatzen duten eskola modeloen⁹ ezagutzen duten arrakasta emendatzearekin batera, irakasle profil berriak garatzen ari dira (eta emendatze hau posible izatea ahalbidetzen dute): ikasleen H2an irakasteko berena ere den H2a erabiltzen dutenak (hizkuntza hau aski berriki barneratu, eta oraindik barneratzen ari direla).

Idazlan honetan gogoeta bat proposatu da, H2 hiztun berriek bide interesgarri bat proposa dezaketela sinetsiz, H2an irakasteko, eta ikasleek honen bidez H2a hau ikasteko. Irakasle hiztun berri hauek ukanen duten hizkuntza zuzen ibiltzeko ardurarekin, ikasleen ulermena gehiago neurtu eta segurtatuko dute, azalpen egokiak eskainiz, eta eginen dituzten akats bakanek ukan dezake alderdi on bat, baldin eta haien zuzenketa ikasleen aitzinean gertatzen bada.

Datozen urteetan, uste hauek gauzatzen direnez agertuko da, H2 hiztun berri hauen irakaste praktikaren eraginak neurtzen ahalko baitira.

7 Aspektu bat gehi dezakegu ere, irakasle H2 hiztun berriak ikaslearen "rola" hartua duela hilabete batzuk lehenago. Honekin, badaki edo argi irudika dezake zer bizi duen H2a ikasten duen pertsona batek: irakasleak edo ikaskideek erraten dutenean ez dena xeheki ulertzea, ulermen orokorarekin egitea, interpretatu behar izatea ulertzen diren edo ulertzea suposatzen diren elementuetatik abiaturik, ikaskideek erreakzioetatik (linguistikoak ez diren beste baliabideetatik), saiakerak egitea (akatsak eginez, ikasketa prozesuaren barne izanez hauek), etab...

8 Kasu, noski ez dugula hemen akatsak nahitarat egitera gomitatzen, eta ondorio ezkorrak ukan ditzakete hutsek (bereziki irakasle erreferenteak egiten baditu eta ez badira zuzenduak), egitura faltsuak irakasten ahalko baititu eta usaia txarrak harrarazten ahalko baitie ikasleei (gainera, gehiegi egiten baditu eta ikasleak ohartzen badira, bere kredibilitatea ere gal dezake). Aldiz, gertatzen direlarik (eta zuzenduak direlarik), akatsek indar bat ere ukan dezaketela sinesten da.

9 Modelo hauek ekar ditzaketen onurak gehiago frogatzekoak ez direlarik (puntu hau ez da garatu lan honetan, baina era honetako erreferentzia gehiago nahi bada jorratu, begira Lascano, 2016).

5. Erreferentziak

- Baker, C. (1993 / 1996 [2. argitaratzea]). *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism*. Clevedon, Ingalaterra : Multilingual Matters.
- Coyos, J. B. (2016). *L'enseignement scolaire bilingue basque-français: avancées et limites*. [In C. Hélot eta J. Erfurt (zuz.). *L'éducation bilingue en France Politiques linguistiques, modèles et pratiques*, Lambert-Lucas, 168-182 orr.]. 2019/02/15ean ikusia helbide honetan: <https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01781091/document>
- Cummins, J. (2005). *Teaching for Cross-Language Transfer in Dual Language Education: Possibilities and Pitfalls*. 2016/05/12an ikusia helbide honetan: http://www.achievementseminars.com/seminar_series_2005_2006/readings/tesol_turkey.pdf.
- Dalgalian, G. (2000). *Enfances plurilingues*. Paris, Frantzia : L'Harmattan.
- _____ (2013, apirila). *L'enseignement bilingue français-basque à l'école, pourquoi et comment?* Angelun aurkeztu komunikazioa.
- EEP, Eusko Jaurlaritzak. (2011). *V. Inkesta soziolinguistikoa. Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Ipar Euskal Herria*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzako publikazio zerbitzua (2013). Ikusia 2016/03/02an, helbide honetan: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/inkesta_sociolinguistikoa_2012/fr_survey/adjuntos/VEnquete%28FR%29_baja.pdf.
- EEP. (2015). *Aholku Batzordea: irakaskuntzari buruzko lan taldea*. 2015/02/03ko aurkezpena. 2019/02/15ean ikusia helbide honetan: http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/1_EEP_Aholku_Batzorde_a_Irakaskuntza_20150203.pdf.
- EEP, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzak (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Iparralde*. 2019/02/12an ikusia, helbide honetan: http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/015_VI_ENQUETE_PBN_eus.pdf
- Garro, E., Larrañaga, A. eta Sainz, M. (2015). Estudio del input de una maestra en un aula de Educación Infantil bilingüe euskera-castellano. In I. García-Azkoaga eta I. Idiazabal (zuz.), *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbo: EHU-ren argitaratze zerbitzua. 101 – 122.
- HABE. (2005). *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako europako erreferentzia markoa*. [Europako kontseilua. (2001). *Common European Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment*]. 2019/02/12an ikusia helbide honetan: http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarriak/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf
- HABE. (2015). *Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Currikuluma*. 2019/02/12an ikusia helbide honetan: http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarriak/eu_9716/adjuntos/HEO_C-digitala.pdf
- Hagège, C. (2013, apirila). *L'enseignement bilingue français-basque à l'école, pourquoi et comment ?* Angelun aurkeztu komunikazioa.
- Idiazabal, I. (2011). Eleaniztasuna hezkuntzaren derrigorrezko beste utopia bat? *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81(4), 89-105.
- _____ (2016, apirila). *Los programas de inmersión para la enseñanza de L2: modelos de enseñanza bilingüe en el País Vasco*. Lisbonako Nova Unibertsitatean aurkeztu komunikazioa, Portugalen.
- Idiazabal, I. eta Manterola, I. (2009). Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa. *Euskera*, 54(2), 463-504.
- Lascano, B. (2016), *Étude du bilinguisme basque-français chez des élèves suivant une scolarité primaire immersive en basque*, Doktoregotza tesia, UPPA – UPV/EHU.

- Lefebvre, F. (2008). *Orthophonie et bilinguisme : comment penser la prise en charge orthophonique ? Elaboration d'un livret d'information à l'usage des orthophonistes*. Maîtrise. Nantesko Unibertsitatea.
- Manterola, I. (2010). *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa*. Tesia. Gasteiz: UPV-EHU-ren argitaratze zerbitzua.
- Petit, J. (2001). *L'immersion, une révolution*. Colmar, Frantzia : Jérôme Do Berzinger.
- Staniforth, L. A. (2011). *Développement langagier chez l'enfant d'âge préscolaire évoluant dans un milieu bilingue ou multilingue*. 2011/10/07ko Webinarioa, 2016/03/02an ikusia helbide honetan: http://www.beststart.org/events/detail/bsannualconf11/webcov/presentations/B1_Laurie-Ann%20Staniforth.pdf.
- TEL2L, (2015). *L'enseignement d'une matière dans une langue étrangère*. 2015/08/19ean eguneratua eta 2016/03/02an ikusia helbide honetan: <http://www.unavarra.es/tel2l/fr/menu.htm>.
- Zabaleta, F. (1994). *Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza murgiltze-ereduan*. Bilbo: Zubia.